

Irakasleentzako orientabideak

SARRERA

Hemen aurkezten dugun monografiko hau Lehen Mailako Hezkuntzako 1. zikloko ikasleentzat pentsatuta dago, bereziki. Giza Eskubideak ditu gaitzat, batez ere elikagai-, osasun- eta hezkuntza-eskubideak. Helburua hemen aurkezten den arazoez neska-mutilak arduratzea denez, eta, aldi berean, beste bizimodu batzuk ezagutaraztea, gure ikasleen esperientzietan oinarrituko gara, hurbilen daukaten errealitateko bizikizun, ezaguera eta pertzepzioen erreferentziak behin eta berriro eginez.

Maria izango dugu bidaide –gure ikasleen adin bereko neska nikaraguarra—, eta haren eskutik, munduan neska-mutil gehiegik bizi duten errealitate gordina aztertuko dugu: bizitza duina izateko ezinbestekoak diren gutxieneko eskubideen urraketa.

HELBURUAK

Ikasleen artean Giza Eskubideei buruzko sentiberatasuna piztea.

Ikasleena ez den errealitateari buruzko ezaguera hedatzea eta errealitate horretara hurbildu eta ulertzeko enpatia lantzea.

Duintasunez hasi eta bizitzeko oinarritzko premiak badirela ulertaraztea.

EDUKIAK

Jarrerak, balioak et arauak

Giza Eskubideen balioespena.

Norberarena ez den errealitatearen ezaguera, balioespena, enpatia eta errespetua.

Elkartasuna eta justizia soziala eragitea.

Proposatzen diren eginkizunetan parte hartzeko interesa

Kontzeptuak

Pertsonen oinarritzko eskubideak.

Pertsonen oinarritzko eskubideen urraketa.

Prozedurak

Bitarte batzuek erabiliz, informazioa lortu: gutuna, ilustrazioak, etab.

Ahozko adierazpena, idatzizkoa eta grafikoa.

Marrazki, labirinto eta beste moduetara aurkeztutako gaien azterketa eta gogoeta.

SAIOAK: 4 eskola-ordu

IKASKUNTZA-JARDUERAK

KAIXO, MARIA NAIZ!

Helburuak: Ikasleei Giza Eskubideen gaia pertsonaiaren bitartez hurbiltzea. Giza Eskubideak pertsonen bizitzarako oinarritzkoak direla ezagutzea.

Deskripzioa: Azaleko argazkiaren eta Mariak bidaltzen digun gutunaren bitartez, Giza Eskubideen gaia aurkezten da. Ondoren, lorearen marrazkiaren bitartez, eskubide horiek betetzeko premia aitortzen da.

Orientabideak: Eman dezagun gutun bat bidali digula Mariak. Esango diegu, beren adineko neska bat dela, kezka bat duela eta azaldu egin nahi digula. Abiapuntua da, bai protagonisak eta bai gure ikasleek elikatzeko, osasuntsu bizitzeko eta hezkuntza bat izateko premiak beteta daukatela, baina badirela beste neska-mutil asko premia horiek bete gabe dituztenak.

Pertsona guztiek bizitza duina izateko daukaten eskubidea hizpide hartuz, komentatu eta gogoeta egitea gomendatzen dugu, eta esatea, oinarritzko elikadura, osasun-zerbitzu eta hezkuntzarik gabe, ezin dela eskubide hori bete. Mariaren gutunak zerikusia du azken jardueran proposatzen dugunarekin, zeinean ikasleek imajinatzen duten protagonistari idatzi ahal diotela, gogoetak berari azalduz.

Ondoren, bi sekuentzia aurkeztuko ditugu, zeinetan azalduko dugun Giza Eskubideak funtsezkoak direla pertsonen bizitzarako, eta, haiek ez daudenean, ondorio larriak sortzen direla.

Giza Eskubideen falta nabarmentzeko, alegi bat erabiliko dugu: azalduko dugu, landare batek urik edo elikagairik ez badu, edota ez bada behar bezala zaintzen, hil egingo dela, eta alderantziz. Kasu batean zein bestean gertatzen dena komentatuko dugu guztien artean.

ZER JATEN DUGU?

Helburuak: Hazkunderako elikagaiak duen garrantzia ezagutzea.

Elikadura Giza Eskubide unibertsala dela argi uztea.

Deskripzioa: Mariak egiten digun galderan oinarrituz, ohiz hartzen ditugun elikagaiak marrazten dira. Ondoren, hazteko eta bizitzeko ezinbestekoak direnak sailkatu eta margotu.

Orientabideak: Marrazkiak margotu ondoren, paper-orri batzuetan banatuko dira, eta gero, denak hari beretik zintzilikatuko dira (suge baten modura). Horrela, gela apainduko dugu.

Eskatuko diegu, baita ere, txiki ziren garaiko aragazkiak gelara ekartzeko, eta ikus dezatela nola aldatu diren. Aldaketa horietako gehienak elikadurari esker gertatu direla komentatu.

EDAN BEHARRA DAUKAGU!

Helburuak: Edateko ura ondasun eskasa dela aitortu, eta jende guztiak ez daukala urik nabarmendu.

Edangarria ez den ura gaixotasun-iturri dela argi utzi.

Deskripzioa: Ura edukitzeko gaitasunaz errealitate ezberdinak erakusten dituzten irudietatik abiatuz, bakoitzaren esku dagoena identifikatu beharko litzateke, bai eta erabiltzeko unea eta modua ere.

Orientabideak: Edateko ura ondasun eskasa dela errepikatzea gomendatzen dugu. Aldiz, ura funtsezkoa da osasunerako. Urak gaixotasunak sortzen dituzten hondakinak eta organismoak eduki ditzake. Kontuz ibili, eta nondik datorren ura edan aurretik, informatu beharra dago. Pertsona guztiak ez daukate dabilen ura etxean. Beraz, ontzi handitan garraiatu behar dute, eta pisu handikoak dira beteta daudenean. Etxean urik ez daukaten pertsonak garbitzeko aprobetxatzen dituzte iturrira edo ibaira egindako joan-etorriak.

Azkenik, edateko ura bilatzeko arazo latzak dituzten neska-mutilak daudela komenta ahal diegu; edateko urik ez balute, nola bilatuko lukete gure ikasleek? Erantzun posibleak denen artean komentatu dira, eta aztertu ere egin daitezke.

BARIZELA DAUKAT!

Helburua: Osasuna Giza Eskubide unibertsala dela ezagutzea, eta gure osasuna zaintzeko ezinbestekoak ditugun gutxieneko osasun-zerbitzu onak eskura edukitzea ere bai. Zerbitzu horiek ez daude denen eskura.

Deskripzioa: Osasun-zerbitzuak eskuratzeko dituzten zailtasunak kontatzen dizkigu Mariak, lau biñeten bitartez. Gero, biñetak talde txikietan aztertu, eta guztien artean komentatzen dira emaitzak.

Orientabideak: Gure protagonista gaixorik dago (azaleko arregosia dauka, barizelaren antzeko zerbait) eta medikuarengana joan beharra dauka. Baina medikua haren herritik urrun dago eta arazo hori konpontzeko, osasun-zentro bat eraikitzen ari dira denen artean. Beste ideia bat: eskolan, nutrizioz, gorputzaren zainketaz, gaixotasunez eta horien prebentzioz informazioa ematen diete. Biñeta horien bitartez, gurea ez den errealitate bat ezagutzen dugu, eta hartara, gure osasuna zaintzeko beharrezkoa den gutxieneko osasun-zerbitzu bat edukitzeko premiaz hitz egin daiteke denen artean.

Aldi berean, gure errealitate hurbilenetik abia gaitzke: zer esan nahi du gaixo egoteak, nola sentitzen gara gaixorik gaudenean, etab. Horrela, neska-mutilek gai horren inguruan dituzten esperientziak eta sentimenduak azal ditzakete.

Azkenik, galdera hau egin ahal diegu: zer gertatzen da botikariek ez badaude, ospitaleak oso urrun badaude, etab.

ATSEGIN DUT IRAKURTZEA, IDAZTEA ETA MARRAZTEA!

Helburuak: Eskolak norberaren gaitasun pertsonala eta soziala lantzeko gaitasuna duela kontuan hartzea.

Eskolara joan ahal izatea Giza Eskubide unibertsaleko bat dela ezagutzea.

Munduko neska-mutil askok eskolara joateko dituzten zailtasun batzuk identifikatzea.

Deskripzioa: Mariaren galderatik abiatuz, eskolan atsegin edo desatsegin duten guztia hausnar daiteke, eta bertan ikasitakoaz mintzatu. Ondoren, marrazkien bitartez, eskolatzeko unibertsala lortzeko dauden oztopo batzuk identifikatzen dira.

Orientabideak: Proposatzen dugun lehen ariketa da: eskolan ikas daitezkeen gauzez hitz egin, gustuko dugunaz eta gutxien gustatzen zaigunaz. Bakoitzak bere koadernoan-edo idatziko du, eta gero gelako beste guztiei komentatuko die idatzitakoa. Eskolan ikasten diren bost gauzei dagokienez, bozketa egitea eska ahal diegu ikasleei, eta hiru gauza bozkatuena denen artean egingo den horma-irudi batean islatuta geratuko dira.

Eskolara joaterik ez daukaten hainbat neska-mutilen egoera sakontzea lortu nahi da. Oztopo batzuk ezagutzeko, labirinto bat egitea proposatzen dugu, non arazo ekonomikoak, ezpiegiturazkoak, gatazka armatuak edo urruntasuna direla-eta eskolara joaterik ez daukaten neska-mutilak agertuko diren. Labirintoa ebatzi ondoren, arrazoi horien guztien aurkako konponbideak bilatzea proposatuko diegu ikasleei. Horretarako, hiru taldetan banatzea eskatuko diegu. Talde bakoitzak arazo bat landuko du, eta konponbideak bilatzen saiatuko da. Azkenean, proposatutako konponbide guztiak batera jarriko dira.

GURE GUTUNA MARIARI

Helburuak: Monografiko honetan egindako lana laburbiltzea.

Munduan milioika lagunek pairatu behar duten injustizia-egoerak direla eta, jarrera kritikoak bultzatzea.

Deskripzioa: Mariak egiten digun galderatik abiatuz, gutun kolektiboa egitea proposatzen dugu, erantzun modura. Ondoren, gutun hori nola zabaldu galdetzen diegu: eskolan, gurasoen artean, tokiko prentsan, udaletxean...

Orientabideak: Monografikoan landutako alderdi guztiak bilduko dituen laburpena egitea da jarduera honen helburua, eta gainera, gizarte-justizien aurrean, jokabide kontsekuente eta kritikoak hartzen hasteko aukera ematen die ikasleei. Gutuna modu kolektiboan egingo da, eztabaida garaian sortutako ideia guztiak kontuan hartuz. Irakasleak orain arte egindako jarduerak eta aurkitu dituzten egoerak gogoraraziko dizkie.

Azkenik, aurkitu dutena indartzeko premia eta interesa ezagutzera emateko helburua bete behar da, gizarte-injustiziaren aurrean, helduei konponketak exijituz. Hori egin daiteke, Mariari ezezik gutuna beste nortzuei bidaliko zaien kide guztien artean erabaki ondoren.

Lehen Mailako Hezkuntzako 1. zikloa



© Intermón Oxfam

Eskubideak guztiontzat

Egilea: Ester Casals


Intermón
Oxfam

Kaixo, Maria naiz!




Maria dut izena eta Leon-etik gertu bizi naiz, Nikaraguan. Adiskideak baditut, eskolara joaten naiz eta gaixotzen naizenean, medikuarengana joaten naiz, eta zu?

Gaur, eskolan, jende guztiak jateko eskubidea duela azaldu digute, eskolara joateko eskubidea eta medikuarengana joatekoa.

Baina nik ezagutzen ditut eskubide horiek ase gabe dituzten hainbat neska-mutil: ez dute elikagairik, botikarik ere ez, eta eskolara ezin dira joan.

Zuen ustez, zer egin dezakegu munduko neska-mutil guztiok eskubide horiek izan ditzagun?

Beha itzazu marrazkiak



Zer jaten dugu?

Nik oilaskoa jaten dut, edo txerrikia, babarrunak, artoa, arroza eta platanofrijituak.



Eta zuk zer jaten duzu?

Marraz ezazu

Marraz itzazu bizitzeko eta hazteko ezinbestekoak diren elikagaiak

Edan beharra daukagu!

Maria, egunero, ur bila joaten da iturrira. Eta zuk nondik ateratzen duzu ura?



Osa ezazu

Zertarako erabiltzen dudan ura:

Noiz erabiltzen dudan:

Barizela daukat!



Gaixorik nago eta medikuarengana joan behar dut!



Baina medikuaren kontsulta urrun dago, Leonen.



Horregatik, osasun-zentro bat eraikitzen ari gara denon artean herrixkan.



Gaixotasunak nola sahiestu azaltzen digute eskolan.

Atsegin dut irakurtzea,
idaztea eta jolastea!


Eta zuri, eskolan egiten dituzun gauzetatik
zein duzu gustukoena?

Eta nekagarriena?

Idatz itzazu eskolan ikasitako bost gauza:

- 1 _____
- 2 _____
- 3 _____
- 4 _____
- 5 _____

Zergatik neska eta
mutil batzuk ezin dira
eskolara joan?



Gure gutuna Mariari

Munduko neska-mutil batzuek ez dute elikagairik, eta ezin dira medikuarengana joan. Nire ustez, hori injustua da, eta pertsona helduei exijitu behar diegu, arazo hori konpon dezatela.

Zer uste duzue zuek?

